



PLANTA BERRIKO ERAIKINAK ESTREINAKOZ ERABILTZEKO LIZENTZIA

- * Eraikin Berriaren Deklarazioari eta eraikinaren Jabetza Horizontaleko Erregimenaren Eraketari dagokion idatziaren zirriborroa.
- * Bizitegi-multzoaren koloretako argazki-erreportajea. Aipatutako erreportajea, halaber, fatxada bakoitzaren argazki bat eta bizitegi-multzo osoaren beste argazki bat agertu beharko dira.
- * Obra Amaieraren agiri grafikoak, baita oinplanoen eta altxaeraren planoak ere. Azken horietan, halaber, bere garaian aurkeztutako Egikaritze Proiektuari egindako aldaketak jasoko dira, baita egindako urbanizazioaren oinplanoari dagokion planoak ere. Azkenik, zehaztu behar dira gauzatutako hiri-zerbitzuen kokapena eta ezaugarriak (argiteria publikoa, ur-harguneak, gasa, elektrizitatea, telefonoa, estolderia, euri-uren ebakuazioa, eta abar).
- * Obraren azken likidazioa, egokiro ikus-onetsia.
- * Obrako Zuzendaritzaren Amaierako ziurtagiria, egokiro ikus-onetsia.
- * Telekomunikazioen Ikuskaritzako Probintziako Buruzagitzaren ziurtagiria, telekomunikazio-zerbitzuak eskura izateko eraikinetan egon behar duten azpiegitura komunei buruzko 1/98 LDE-an zehaztutako obligazioak bete direla erakusten duena.
- * Gauzatutako urbanizazioaren abala edo bermea kitatzeko eskaera.
- * Berinapeekin, garabiekin eta hesi babestaileekin okupatu izan den bide publikoari dagokion agiria. Okupatzeari buruzko epeak adierazi beharko dira, bai hegalkinaren okupazioarenak baita lurzoruaren okupazioarenak ere.
- * Higiezinak sustatzeko jarduerari dagokion JEZ-aren 833 epigrafeari jarraiki transmititutako metro koadroen Aitorpenaren fotokopia. Aipatu agiria Basauriko Udalaren Jarduera Bulegoan aurkeztu beharko da.
- * Kalitatearen kontrolari dagokion Ziurtagiria (Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendua, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak urriaren 22an emandako 238/96 Dekretua, zeinaren bidez Eraikuntzako Kalitatearen Kontrola arautzen den – 1996/11/7ko 215 zenbakidun EHAA).

EBAZPENA EMATEKO EPEA: 3 HILABETE.

AKATSAK ZUZENTZEKO GEHIENEZKO EPEA: 15 egun.

Akats horiek ez badira zuzentzen, eskaria beste izapiderik gabe artxibatuko da.